

**GIZA ESKUBIDEETARAKO, ENPLEGURAKO
ETA GIZARTERATZEKO
DEPARTAMENTUAREN KUDEAKETAREN
BALANTZEA**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2007ko ekaina



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Giza Eskubideetarako, Enplegarako
eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos,
el Empleo y la Inserción Social

Giza Eskubideak Derechos Humanos



SARRERA

VII. legealdiaren azken txanpan, gure departamentuak hasierako konpromiso nagusiaren inguruan egindako jardueren balantzea egiteko garaia iritsi da; honako hau zen konpromisoa:

ESKUBIDE GUZTIAK

PERTSONA GUZTIENTZAT.

GURE ERRONKA ETA GURE KONPROMISOA.

Giza Eskubideen eremua gatazka politikoak erakusten diguna baino zabalagoa denaz ziur gaudenez, Foru Departamentuak hasieratik giza eskubide guztien aldeko mezua helarazi nahi izan du eta, bereziki, eskubide sozialen aldekoa, hiritarrak askatasun osoz jardun ahal izateko gako gisa, Euskadin lehenengo aldiz Giza Eskubideen foru politika abian jartzeko konpromiso politikoaren bidez.

Ia lau urtez Departamentuaren ekintzaren oinarri diren printzipio edo ardatzei erantzun diegu gure jarduera eta ekimenekin.

Jarraian, proiektu eta ekimen esanguratsuenen laburpena adierazten da, gure departamentutik kudeatutako hiru alorren inguruan taldekatuta:

- I. Giza Eskubideak
- II. Haurrak, Gazteak eta Garapenerako Lankidetzak
- III. Gizarteratzea eta Enplegua

GIZA ESKUBIDEAK

- Giza Eskubideen alorrean **foru politika berria** sortzea; horretarako, 2,5 milioi euro zuzendu dira dibulgazio, ezagutza eta hausnarketako 67 ekimenetara eta Nazioarteko 3 Topaketetara.
- Bereziki, ekimen ugari egin dira biztanleria gipuzkoarra **eskubide sozialak** giza eskubide ere badirenaren inguruan kontzientziatzeko.
- Gure lurraldean Giza Eskubideen alorrean lan egiten duten eragile nagusiekin **lankidetzaren esparru egonkorra** definitzea; hauek dira eragile nagusiak: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza eta Baketik.
- **Gatazken ebazpenaren** inguruko gaitako prestakuntza Gipuzkoako udal gizarte zerbitzuetako langileen % 65entzat, Departamentuaren eta Hazi Sarearen arteko lankidetzari esker eskainitako ikastaroen bitartez.
- Gure lurraldean Giza Eskubideen alde lanean ari diren talde eta pertsonen aintzatespena, **“Gipuzkoa Giza Eskubideak Saria”** foru sari berria sortzearen bidez; honako hauek izan dira sari horrek aintzatetsitako pertsona eta erakunde batzuk: Txema Auzmendi (2004), Agipad (2005) eta Paco Etxeberria (2006).

HAURRAK, GAZTEAK ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA

Foru Aldundian, **lehenengoz**, haurren, gazteen eta garapenerako lankidetzaren alorrentzako berariazko Zuzendaritza Nagusia sortu da.

(www.gipuzkoa.net/gazteria)

Zuzendaritza berri horrek egitura bakarrean biltzen ditu ondoko esku-hartze alorrak:

- Gazteria eta garapen komunitarioa.
- Babesik gabe dauden haurrak.
- Gazte egoitzak eta aterpetxeak.
- Garapenerako lankidetzak.
- Boluntario lana sustatzea.

LORPENAK:

- Haurren babesaren esparruko eskumenak berrantolatzea, **Haurren Babes Atala sortuz**.
- Baliabide material, ekonomiko eta giza baliabideen **hazkunde handia**:
 - ▶ Aurrekontua % 67 hazi da 2003az geroztik; 2003ko 11 milioi euro ziren eta 2007rako 18 milioi baino gehiago aurreikusitako dira.
 - ▶ Eskualdeko babes ekipoak bikoiztea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzako laguntza gisa, bai eta famili esku-hartzeko hainbat programetako profesional kopurua ere.
- **Haurren babesgabeziari arreta eskaintzeko larrialdiko harrera zentroen sarea** finkatu eta hobetzea
- **Haurren babesgabeziari** arreta eskaintzeko neurrietako **aurrerapen nabarmenak**:
- GIDA:
<http://www.gipuzkoagazteria.net/informazioa/webproteccion/index.html>

► Haurren babes gabeziari arreta goiztiarra eskaintzeko sarea sortzea, honako hauek ahalbidetu dituzten eskualdeko 4 talde berrien bitartez:

-larrialdiko harrera kasuak bikoiztea

-legezko babes neurriak % 34 ugaritzea

-familia esku-hartzeko programetan arreta eskainitako adingabeak % 36 handitzea

► Bakarrik dauden adingabe atzerritarren **errealitate berriari erantzun** egokia ematea, egoera honako hau baita:

-% 37 gehiago dira

-adinak 15 urte bitarte egin du behera

-eta horietatik, % 60k Gipuzkoan geratzea erabakitzen du.

- **Aterpetxeen foru sareko hobekuntza programa**

► Instalazioak guztiz berritzea, kalitate estandarretara egokitzeko, bai eta irisgarritasunaren eta segurtasunaren inguruko alderdiak konpontzeko ere. Zarautz eta Hondarribiako aterpetxeak.

► Segurako aterpetxea izan da ingurumen kudeaketako 14001 araua ezarri duen lehen foru instalazioa.

► Lau foru aterpetxeek Appcc metodologia instalatu dute segurtasuna, elikagaien manipulazioa, higiena eta instalazioen garbitasuna ziurtatzeko.

<https://ssl4.gipuzkoa.net/Corporac/Juv/Albergues/index.asp>

- Nerabeei eta gazteei zuzendutako CRAJ eta Gazteguneko zerbitzuak berritzeko inbertsio garrantzitsuak.
<http://www.gipuzkoagazteria.net/gazteria/webgaztegunegune/gaztegunegunt.htm>

- **Plan estrategikoa 2005-2008** diseinatu eta garatzea, lehenengoz, plan bakarrean biltzen dituen honako alderdi hauek:

- ▶ haurrak, nerabeak eta gazteak (0-29 urte)
- ▶ Biztanleria normalizatuaren babesgabeziako egoerak

Honako hauetara zuzentzen da:

- ▶ haur, nerabe eta gazteen eskubideak **sustatzera**,
- ▶ babesgabeziako egoerak azaleratu eta finkatu ez daitezkeen

aurreneurriak hartzer

- ▶ eta arrisku egoeran dauden adingabeak **babestera**.

- **Udalentzako aholkularitza eta kontsultoretza programa hobetzea**, haur, nerabe eta gazteen % 80 Departamentuarekin hitzarmena duen udalerriren batean bizi dadin; hitzarmen horren bitartez, besteak beste, aisia eta hezkuntza alorreko politikak garatzen dira, horrela udal gipuzkoarren eskaera nagusiei erantzunez.

- Haur eta gazteen udal eragileei, haurrak babesteko sistemetako profesionalei, elkarte eta irabazi asmorik gabeko erakundeei eta boluntarioei zuzendutako **prestakuntza eskaintza berria** sortzea.

- Gazteentzako **udaleku programak finkatzea**, hiritargoak gehien eskatzen dituenetarikoa direlako. Urtean 2.500 pertsona ingururentzako lekua eta asebetetze maila altua (8,7) izan dute.

- Gizalde Gipuzkoako boluntarioen agentzia berriro planteatzea. (www.gizalde.com) bisita kopurua hirukoiztuz.

- **“Sareginez” boluntarioen elkarten sare gipuzkoarraren** sorrera babestea.

- Garapen bidean dauden herrialdeekin **lankidetzan jarduteko foru politika berria** sortzea; Gipuzkoako GGKEen bitartez **14 milioi euro baino gehiago** bideratu dira arlo horretara legealdi honetan.

2005ean, lehenengoz, Foru Aldundiaren erabiltzeko aurrekontuaren % **0,7** nazioarteko elkartasunera zuzentzeko konpromisoa hartu zen eta, horri esker, **150 proiektu** finantzatu dira munduko **27 herrialde** baino gehiagotan.

Lankidetzaz esparru egonkorra ezartzea Gipuzkoako GGKEen Koordinakundearekin, bai eta Amigos de la RASD (Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoa) Elkartearekin ere.

GIZARTERATZEA ETA ENPLEGUA

Gizarteratzea eta Enpleguko programen helburua izan da **pertsona behartsuen erabateko gizarteratzea** lortzea, prestakuntza eta enpleguko politika aktiboak eta gizarteratze programak bultzatuz eta gizarte babeseko oinarrizko sistemetara heltzea bermatuz.

Legealdi honetan egindako oinarrizko proiektuak bere eskumenekoak diren lau alor nagusien ingurukoak izan dira: **prestazio ekonomikoak, lan munduratzeari, gizarteratzeari eta berdintasunari**.
<http://www.egokilan.net/euskera/prestacion/prestacion.asp>

- Departamentuak kudeatutako prestazio ekonomikoek (Oinarrizko Errenta, laguntzako pentsioak eta bestelako prestazio ekonomikoak) gizarte bazterketa egoeran edo hori jasateko arriskuan dauden pertsonen **oinarrizko eskubide sozialak** sustatzen dituzte.
- Adina aktiboan dauden eta prestazio ekonomikoren baten onuradun diren pertsonen kopuruak % 10 egin du behera legealdi honetan; aldiz, prestazioen zenbatekoak % 25 egin du gora. Bestela esanda, geroz eta pertsona gutxiago dago gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan eta jasotzen dituzten zenbatekoak geroz eta handiagoak dira.

Ildo horretan, azpimarratu behar da Oinarrizko Errentaren kudeaketa positiboa izan dela, legealdian ia ez baita jasotzaileen kopurua handitu, batez ere honako alderdi hauek kontuan izanda:

- 65 urte baino gehiagoko jasotzaileen % 134ko hazkundera Departamentuak 2006an abian jarri zuen eta horiei prestazioa jasotzeko beren eskubidearen berri ematen zien kanpainari esker gertatu da.

- Jasotzaile helduen (26-50 urte) kopuruak % 12 egin du behera, adin tarte hori baita gure lurraldeko biztanleria aktiboaren motorra.
 - Gipuzkoan asko igo da immigranteen kopurua eta horietariko asko Estatuko egungo araudiak gizarte bazterketako egoera jasateko arriskuan uzten ditu.
 - **Lan munduratzeari** izan da gizarte bazterketa saihesteko ardatz nagusietariko bat. Enplegu programa berriak sortu dira, besteak beste, Merkataritzan, Sarbide eta Zirkinka, eta Txekinbide eta ezintasunak dituzten pertsonentzako Elbide ibilbidea finkatu dira.
<http://www.egokilan.net/euskera/empleo/empleo.asp>
- Lan munduratzeko programetan parte hartu duten pertsonen kopurua nabarmen hazi da; 2003an 763 pertsona ziren eta 2006an 1.489.
- Horien artean gehienak emakumeak dira, nahiz eta legealdian zehar gizonen parte-hartzeak gora egin duen, 2003ko % 13tik egungo % 31ra. Hiru pertsonatik batek lana lortzen du prestakuntza aldiaren ondoren.
- Lan munduratzeko berariazko programetan parte hartu duten ezinduei dagokienez, % 21 egin dute gora; 2003an 3.840 ziren eta 2006an 4.631. Azpimarratu behar da legealdian zehar horietariko 682k kontratu mugagabea lortu dutela enplegu arruntean.
- Esperimentatu ondoren proiektuak finkatzeko helburua duen Europar Batasunaren **Equal ekimenari** atxikitako gizarteratzeko eta lan munduratzeko sei proiektu ezarri eta garatzea.

- **Gizarteratzea**

<http://www.egokilan.net/euskera/insercion/insercion.asp>

Bikoiztu egin da 2003-2006 aldian gauzatutako gizarte gastua; egun 8,5 milioi euroko aurrekontua du.

Ostatuak: 2003an 745 pertsonari eskaini zitzairen arreta eta 2006an 1096ri. Lekuei dagokienez, 2003an, 220 zeuden eta 2006an, 353.

- **Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua** sortzea

http://www.egokilan.net/euskera/insercion/insercion_servicio.asp;

EAEko lehen foru esperientzia honen asmoa da bitarteko bat eskaintzea udaletako gizarte zerbitzuen arreta orduetatik kanpo gertatzen diren larrialdietarako: egoeraren arabera larrialdiak, norbanakoenak, eta famili nahiz gizarte larrialdiak. 2005ean abian jarri zenetik, 801 pertsonari eman zaie arreta (2006ko abenduaren 31 bitarte).

- Berdintasuneko eta genero indarkeriako programetako inbertsioa http://www.egokilan.net/euskera/insercion/insercion_atencion_violencia_genero.asp#victimas laukoiztu egin da; 132 mila eurotik 567 mila eurora pasatu da 2007an eta, ondorioz, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako lurraldeko eskualde guztietako ostatu sarea indartu da.

Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako laguntza psikologikoko programek, bai eta tratu txarrak ematen dituztenentzako programek ere, mila pertsona baino gehiagori eskaini diete arreta legealdi honetan.

Halaber, Foru Aldundiak **Departamentu arteko Batzordea** eratu du **berdintasun politikak garatzeko** eta bertan departamentu guztiek hartu dute parte.